

BIZKARKARIAK (PARASITOAK)

Zomorro oneik abereai edo landarai itsatsi egiten jakez eta euren bizkar edo lepotik, euren kontura, bizi dira. Parasitoak edo bizkarkariak esaten dautsegu.

Lur-ikarak baiño bildurgarriagoak jakuz olako zomorroak. Eulien bidez etorri leikiguz gaiso asko edo izurriak.

Euliak aragi ustela dabe maite eta ortik zabaltzen dabez munduko mikrobio guztiak: kolera, tifus...

Aspaldion egiten dira alegiñak euli orreik galtzeko.

Tse-tse eulia da Afrika'n lo-gaisoa zabaltzen dauana: Zizta egiten dau azalean eta batera sartzen dau gaisoaren pozoi ori.

Zm. bat luzerakoa eta urdiña da euli au. Ego bi daukoz bizkar-gaiñean eta okertzekoa dan eztena. Bizkoarra da eta egunez baiño ez dau ziztatzen. Ziztada orreik errearen atzeko oiñazea sortzen dabe.

Afrika'n bizi da, lurralde beroetan, baso eta ibai-ertzetan eta ez dautse bakean izten ango pizti eta gizakia, batez, be erreka-ontzietan, eiztaritzan edo zur-lanetan dabilzanai.

Errialde osoak utzitu ditu, Europa'tik Afrika'ra osagilleak joan-aurretik.

50 milimetroko mikrobio bat sartzen dabe eta berak odola artzen dau eta gaisoa itzi eta gero zabaldu egiten da gizonik gizonera eta abereetara.

Anofeles deritxonak sukarra sortzen dau.

Onak anka luze eta meeak daukaz, emeak adar luze eta lumadunak. Arrak adar mee-meeak eta ezten okergarria. Emeak ziztatzen ditu gizonak eta abereak, arrak landaren izerdia xurgatzen dau. Paludismoa ta malaria be zabaltzen dauz.

IRRINTZI

Lurtar gizon guztiok
jo irrintzi Jaunari
goizian goizetik,
belaun biak makurtu
egun-senti aurrian
gogoz, biotzetik.

Mendian gora doaz
artzaiñen irrintziak
biotz zabaletik,
arrano baltza goian
gizonei entzuten
egazka menditik.

Irrintzi bat egin da,
zoaz, bai, eskolara
gogorik onenaz,
ikasi ta gizondu
zure bizitz ederra
jakituriagaz.

Estegomia'k sukar-oriaren “birus” dakar lurralde beroetan.

Arraiñenak narru-gaiñean izten dau ziria eta ortik zabaltzen da tifus gaisoa.

Abere bakoitxak dauko bere etsai dan zomorro bizkarkaria edo parasitoa. Milla ta berreun mota dagoz: arratoiarena, txakurrarena, elefantearena, gizonarena eta abar... Pizti guztiai erasoten dautse, erapedunai naiz egaztiai naiz erleai...

Arratoiaren bizkarkaria da txarrena eta gizakiari be erasoten dautso.

XIX gizaldian konturatu zan gizakia, arratoiak izurrietan dauken garrantziaz.

Tifus'en bizkarkaria zabaltzea kalte aundia izaten da.

Etxeko auliak alde guztietatik inguratzen gaitue, baiña etxeko euliak gorputz illak naiago ditu, biziak baiño.

Etxeko eulia dogu zomorrotik bigunena, edonora sartzen da bildur barik eta zirikatzaile aspergarria izaten da gizakiarentzat.

Mota asko dagoz: urdiñak, orlegiak... guztiak ibillera bardiñekoak eta usaiñari jarraituz ibiltzen diranak.

Basoetan be etxekoen antzeko euliak dabiltz, baiña tabano deritxona da ezagunena: landaretan eta landetan dabillen euli aundia da, ezpata-eulia, odol-zalea eta landatik doan gizakirik naiz abererik ez dago beragandik aske. Narrurik gogorrena be zulatu leike bere eztenagaz. Ur-bazterretan jaio, azi eta bizi da eta antxe egiten dauz arrautzak.

OLAZAR'tar Martin'ek

LURRA GIZONEN BIZI LEKU

Mendi ta laualdeak
bizi-bizirik dagoz
opaka bizia,
Euskalerra maiteak
toki ederrak ditu
eskainduz zoria.

Lurraren mamin ona
gizonaren lanagaz
gozoz, alkatzen da,
mendie ta zelaiak
bizia emon nairik
agertuten dira.

Giza seme leiala
gartsu, dabil lurrean
atxurrez lanean,
lurrak, zintzo, erantzun
frutu onak emonaz
gizonen onean

PAULIN